

# ESTATUKO TXAPELDUN IPAR ESKIAN

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# WAILOPE

258

2018ko maiatza

TOKIKOM





**ERNE ETA ADI!**

Nik ez dakit gainerako pertsonak ohartzen ote diren, baina, neronek behinik behin, egunero-egunero entzuten eta ikusten ditut euskarazko hitzak eta abar, oso gomendagarriak ez direnak, bai hedabideetan eta baita pertsona erreferentziales esanak ere. Testu honek helburu pedagogiko eta didaktiko hutsa du, besterik ez. Gaur hitz hauexek hartuko ditut: sakabanaketa eta dispersioa.

Bai, biak existitzen dira eta egokiak ditugu, baina bakoitza bere arloan. Hona hemen, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren definizioak eta adibide batzuk:

- sakabanaketa: iz. Sakabanatzea. *Zazpi hautagai aurkeztu dira, asko, eta horrek botoen sakabanaketa ekarri du. Presoen sakabanaketak sufrimendua besterik ez dakar.*

- dispersio: 1 iz. *Fis.* Argi izpi bat, errefrakzioz, espektroaren koloreetan banatzea.

2 iz. *Kim.* Gai batek eta barnean era uniformearen sakabanaturik daukan beste gai batek osatzen duten sistema.

Hori ikusita, uste dut guztiz garbi gelditzen dela, hauek bezalako esaldiak ez direla egokiak: "preso politikoen dispersioari bukaera eman behar zaio" edota "preso politikoen dispersioari ez" eta abar.

Norberak ikus dezala modu egokian ala desegokian erabiltzen duen. Sarri arte.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz.

**BIZIKLETAK UZTEKO GUNEEI ETA OINEZKOENTZAKO ESPAZIOA IRABAZTEKO PROPOSAMENARI EZEZKOA EMAN DIO ALKATETZAN DAGOEN TALDEAK**

EHBildutik, martxoko udal batzarrean, herriko mugikortasuna hobetzeko neurriak aurkeztu genituen. Alde batetik, kontuan hartuta kultur etxean, frontoian eta herriko plazan bizikletak uzteko tokirik ez dagoela, bizikletak uzteko guneak jartzea proposatu genuen. Beste alde batetik, kultur etxearen inguruan momentu batzuetan auto pilaketak izaten direnez eta herritarrentzat arriskutsua izan daitekeenez, liburutegiko bi sarrerak lotzen dituen kalea autoen zirkulazioari ixtea proposatu genuen, eta kale hori oinezkoentzat irabaztea. Lekunberriko Taldeko buruak, alkatesa andreak, ezeko biribila eman zion proposamenari taldearen izenean, argudiatuz garapen lan taldean landu beharko litzaketela gai hau, nahiz eta jakin azken 6 hilabete hauetan lan taldea ez dutela deitu. Bere taldekidea da garapeneko lan talde parte-hartzailea deitu behar duena, eta hori askotan eskatu dugu EHBildutik. Gauzak horrela, ez da proposamenik onartu, Lekunberriko Taldeko bozkak aurkakoak izan direlako; garapen lan taldeak, berriz, bildu gabe jarraitzen du.

Lekunberriko EH Bildu Taldea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)-era hilaren 20a baino lehen.



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu




**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefona eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)



**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**tanatorios**  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Joana Ziganda.

06 ELKARRIZKETA: Kattalingune.

11 MOKOKA

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 REPORTAJEA: Margarita Rekalde.

20 KULTURA

22 KIROLA

26 HITZ ASPERTUAN

27 KUXKUXEAN: Maiatzeko zorion agurrak.

28 PLAZATIK PLAZARA: Araxes ikas komunitatea.

30 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Beretxu Lavin, Margarita Rekalde, Unai Ijurko, Kattalingune, Larraungo AEK euskaltegia, Juan Karlos Zubieta eta Araxes ikastetxea.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA



## Maratoi ortografikoak

Aurten 5. mailako ikasleok Maratoi Ortografikoa antolatu dugu. Zer den hori galdetuko duzue, ezta? Ba, orain azalduko dizuegu: ortografia lantzeko modu ezberdin bat da, taldeetan egiten dena.

Hasteko, gure familiei laguntza eskatu eta taldeak egin genituen (8): talde horia, urdina, gorria, laranja, morea, berdea, beltza eta arrosa. Talde bakoitzean bi geletako kideak eta parte hartu duten familiak geunden.

Lehendabizi hiru prestakuntza saio izan genituen, bat otsailean eta beste biak martxoan. Guk landutako hitzak *za, ce, ci, zo, zu, h-ak, ll* eta *y* izan dira. Taldeetan, laguntza moduan, material ezberdinak erabili ditugu: hitz horiek lantzeko fitxak, hiztegia eta ortografia liburuxka bat zalantzak argitzeko.

Prestakuntza saioetan oso gustura sentitu gara, taldean geunden eta. Baina, hori bai, Maratoia bakar-kakoa izan zen. A ze urduritasuna!!! Aldaketa handia izan zen denontzat. Maratoian 25 minutu genituen 100

hitz zuzen idazteko eta ardura handia sentitu genuen, baina aldi berean, ortografia ikasteko modu ezberdina eta dibertigarria izan da guretzat.

Nahiz eta emaitzak oraindik ez ditugun jaso, badakigu lortzen dugun puntuazioa ez dela bakarkakoa izanen, taldekoa baizik. Laguntzaile eta ikasle guztien artean emaitza bat zehaztu dugu erronka moduan eta gure helburua maila horretara iristea da.

Baina hau oraindik ez da bukatu. Ikasturtea amaitu arte, Maratoiarekin jarraitzeko asmoa dugu, oraindik hainbat arau geratzen baitaizkigu lantzeko.

Bukatzeko, 5. mailako ikasleekin parte hartu duten laguntzaile guztiei eskerrak emateko aprobetxatu nahi genuke, haiek gabe ez litzatekeelako posible izango honelako ekintza bat aurrera eramatea.

Ane, Isabela, Irati, Lucia,  
Mattin, Maider eta Maialen M.



eskolatik  
mailopera



**aseguru  
gintza  
XXI**

**ASEGURU  
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna  
babesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**ANTONIO CARRARO**

**BIDEGOXO JATETXEA**

*Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak*

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)






## EURITEEK ERAGINDAKO KALTEAK

Apirila hilabete euritsua izan da eta lur azpian pilatutako urak, hainbat luizi eragin ditu eskualde osoan. Horrez gain, hainbat erreka bere ibilgutik aterata egon dira eta basoetako zuhaitz asko ere erori egin dira.



## ZERGA-BETEBEHARRAK BETETZEKO TAILERRA

Zerga-betebeharrak betetzeko agiriak nola antolatu ikasteko tailerra antolatu du Cederna Galur elkarteak Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera. Maiatzaren 8an, goizeko 10:00etatik 14:00etara izanen da ikastaroa Mitxausean. Izena ematea: 617 609 328 / [mendialdea@cederna.es](mailto:mendialdea@cederna.es).



## BETELUKO JAIETAKO IRUDI- AREN LEHIAKETA

Beteluko sanpedroak antolatzeko jai batzordea dagoeneko hasi da lanean eta aurtengo liburuxkako azala osatzeko lehiaketa egin dute. Maiatzaren 10ean amaituko da proposamenak bidaltzeko epea. [betelukolagunartea@gmail.com](mailto:betelukolagunartea@gmail.com) e-postaren bitartez jasoko dituzte lanak. Animatu eta parte hartu!

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Joana Ziganda (Oskotz)

*Bardoak pasa eta  
badugu zer egin,  
bertsoaren doinua  
dugunez atsegin  
norabide berean  
amets, ahalegin  
bertso saio bakoitza  
gozatuta berdin.*

Doinua: Gizona da zoroa.

*Batzuetan gailurra  
bestetan ezina,  
Bat-baten aritzeak  
hori du jakina,  
finalaren atean  
ibiltzean grina,  
"Bi Dozenan" lorpena  
ekinez egina.*



**Aitorrentzako puntua:**  
Zein da Larraun aldeko  
gazteen ardura?

**Oinak:**  
Guregana, lana,  
izana, iragana.

## “Ingurukoek onartzen ez badute benetako kalbarioa izan daiteke”

*Inork gutxik ezagutzen ez zuen armairu bat bazen, iluna, ongi ikusia ez zegoena. Armairu horren barruan zer zegoen eta ate hori irekitzeak zer suposatzen zuen inork gutxik jakin arren, denek horri buruz hitz egiten zuten, eta duguna. Zenbat aldiz entzun duzu edo esan duzu hau edo hura armairutik atera dela? Neska horrek lesbiana itxura duela? Edo beste hura bizioso hutsa dela atzo neska batekin zebile-lako eta gaur mutil batekin ikusi dutelako?*

**Amaia Barrena psikologoa eta hezitzaile sexuala da eta Aner Ansorena Kattalinguneko komunikazio arduraduna da. Joan den martxoan, Lekunberrin, hitzaldia eman zuten Kattalinguneko kideek zerbitzua ezagutzera emateko. Kattalingunek LGTBI kolektiboari (Lesbiana, Gay, Transsexual, Bisexual eta Intersexualen kolektiboa) ez ezik bere identitate edo orientazioarekin arazoak edo ezinegonak dituen edonori laguntzeko zerbitzua da. Pixkanaka gizartearen aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ere gizarteak berak finkatu dituen etiketatik alde egitea kosta egiten da eta identitate eta askotariko orientazioak daudela errespetatu arren, naturaltasunez onartu dadin asko dago egiteko.**

### **Kattalingorri, Kattalingune, Harrotuz... Zerk batzen ditu?**

**Amaia:** Kattalingorri 2000. urtean sortu zen elkarte da LGTBI kolektiboa ordezkatzeko duen elkarte. Orain gutxi arte oso behin-behinekotasunean bada ere, Nafarroan kolektiboaren errealitatea ikustarazten lan egin du, gizartearen sentsibilizatuz eta aktibatuz. Ekonomikoki ia laguntzarik gabe borroka horretan egon da. **Aner:** Kattalingune eta Harrotuz, elkarteak martxan jarritako zerbitzuak dira. Lehena Nafarroa osoari zuzendua eta bigarren Iruñeko Udalaren bitartez hiribururako. Kattalingune 2016an sortu zen eta zerbitzuaren helburuetako bat da udalez udal eta herriz herri zerbitzua eskaintzea eta horren premia ohartaraztea.

### **Zergatik egin zen aldaketa hori 2016an?**

**Aner:** Nafarroan gobernu aldaketa gertatzen da eta nolabait ordura arte elkarteak eskaintzen zuten zerbitzu hori duin egiten hasi ziren, militantzia hutsetik zerbitzu profesionalago bat eskaintzera pasaz. Elkarteak bi proiektu aurkeztu zituen, bai Iruñeko Udalean eta baita Nafarroako Gobernuan ere. Kattalingune sortu eta kudeatzeko hitzarmen bat sinatu zen Nafarroako Gobernuarekin.

### **Eta momentu honetan zeintzuk dira Kattalinguneraren helburuak?**

**Amaia:** Helburuak asko dira baina laburbilduz esan dezakegu zerbitzu honek sexu aniztasuna balio baten moduan ikustarazi nahi duela gizarte osoaren aurrean. Ez diogu soilik LGTBI sigla horrek daraman kolektiboari erantzuten. Kattalinguneraren helburua zabalagoa da, gizarte osoari zuzendua, eragile sozialei, kolektiboari, ikastetxeei, familiei, auzo edo herrietako elkartei... Bestetik, helburu zehatzagoak ere baditugu,



Aner Ansorena Kattalinguneko komunikazio arduraduna da eta Amaia Barrena hezitzaile sexuala eta psikologo lanetan aritzen da zerbitzuan. Arg: Labrit.

sentsibilizazio kanpainak egitea, alor espezifikoek gaineko formakuntza eskaintzea, LGBTI kolektiboko pertsonen eta euren senide eta ingurukoien aholkularitza, orientazioa eta laguntza eskaintzea...

**Beraz, gizarte osoari zuzendutako zerbitzu bat da. Baina zein aholkularitza mota eskaintzen duzue hemen?**

**Amaia:** Aholkularitza zerbitzua batez ere sexologikoa izaten da, identitatearekin edo orientazioarekin zerikusia duten kontuei buruzkoa. Izan daiteke, LGBTI kolektiboko pertsona bati zuzendutakoa edo bere guraso, edo lagun bitartez egiten dena. Baina izan daiteke gizonetzkoa izanik beti gizonetzkoekin liatu izana eta bat-batean gau batean emakume batekin liatzea. Edo heterosexuala nintzela uste izan eta egun batean nire sexu bereko pertsona batekin liatu naizelako galduta sentitzea. Zer naiz, heterosexuala, homosexuala, bisexuala...? Gizarte honetan hiru etiketa daude eta egiten den irakurketa da horietako baten barruan egon behar zarela. Baina identitatea eta orientazioa ez da horren hertsia, uste duguna baino zabalagoa da.

**Hainbat herritan Kattalingune zerbitzua ezagutzera emateko hitzaldiak eskaintzen hasi zarete... Lekunberrin martxoan izan zineten... Zer moduz joan zen hitzaldia?**

**Aner:** Bertan Inma Etxarri, kultur teknikariaren bitartez antolatua genuen eta jende dezente bildu zen, 2016tik hona egindako aurkezpenen jendetsuena izan zen.

**Eta hitzaldi horietan zer da aurkeztu duzuen?**

**Amaia:** Zerbitzua bera eta eskaintzen dituen baliabideak aurkezteaz gaine-



Kattalingunek Lekunberrin eskaintako hitzaldia orain arte zerbitzuak eskaintako arrakastatsuen izan zen.  
Arg: Aner Ansorena.

ra, hitzaldiaren bitartean leku horretan LGBTIren eta sexu aniztasunaren gaia zein egoeratan dagoen ezagutzeko erabiltzen dugu.

**Aner:** Lekunberrin adibidez aurkezpenaren ondoren talde bat aktibatu zen. Helburua landa eremuko herrietan ere gune kritiko bat sortzea da LGBTI mugimendu bat eratzeko edo herri horretan antolatzen diren ekimeneetan LGBTIren gaia kontuan hartzeko, jaietan, eskolan... Lekunberrin gazteengana iristea lortu genuen eta 16 eta 25 urte bitarteko 60 laguneko gazte talde bat elkartu da eta pixkanaka hasiko gara lanean eta gauzak antolatzen.

**Eta Lekunberriko hitzaldian zein pertzepzio izan zenituzten edo zein iritzi jaso zenituzten?**

**Amaia:** Bertan egon ziren pertsona gehienentzat buruan zuten gaia zen, zerbait egin izan dute edo egin nahi dute. 25 edo 30 pertsona elkartu ginen eta jendaurrean hitz egiteak sortzen duen lotsa kontuan izanik ere, oso eztabaida parte-hartzailea sortu zen. Uste dut belaunaldi berriek gaia normaltasun handiagoarekin hartzen dutela nabari dela. Beraientzat ez da horren zaila gai



*“Helburuetako bat landa eremuan sentsibilizazio aniztasuna balioan jartzea da”*



*“Gauza gehiago baimentzen dira, baina ezberdintasuna onartzeko ez dira bideak eratu”*

horiek lantzea, nahiz eta oraindik gauza asko ditugun egiteke.

**Aner:** Baziren gaiak barrutik ukitu zituen pertsonak ere. Garrantzitsua da ohartzea, orain dela hamar urte Lekunberrin zenbait gairi buruz hitz egitea oso zaila zen eta orain aldiz pixka bat errazagoa bada.

### **Kattalingunera zein kasu mota iristen zaizkizue?**

**Amaia:** Denetarik. Azken batean Kattalinguneren helburuetako bat da landa eremuan sentsibilizazio aniztasuna balioan jartzean. Adibidez, deitu izan digu eskola bateko irakasle batek gomendio eske, ikasgelan nola kudeatu ez dakien egoera bat duelako, edo jokabide desegokiak ikusten dituelako. Baliteke aholkularitza bilera baten bitartez laguntzea edo liburu bat proposatzea... Izan daiteke transexuala den haur edo gaztetxo batek laguntza eske jotzea gugana etxekoei kontatu nahi dielako eta ez dakielako nola edo etxean ez duelako babesik jaso... Profila oso zabala da.

### **Azken urteotan euren orientazio eta identitatearekin arazoak dituzten pertsonak geroz eta goizago hasten dira azaleratzen. Zergatik dela uste duzue?**

**Amaia:** Alde batetik, gaur egun geroz eta onarpen handiagoa dagoelako gizartean eta erreferentzia eta azpiegitura gehiago daudelako. Eta nahiz eta oraindik, adibidez transe-

xualitatearen egoera patologizaturik egon eta oraindik normaltasunarekin tratatzeko urrun gauden, egia da pertsonen artean diskurtsoa ezberdina dela. Hori nabaritzen da, ikusten da jendea elkartu egin dela zerbait berri erakusteko munduari eta ez dira soilik diskurtso politikoa egiten ari, ikerketa zientifikoetan oinarritzen dira eta horrek lagundu egin du.

### **Zein da Kattalingunen jarraitzen duzuen protokoloa?**

**Amaia:** Edozein saio oinarri sexologikotik planteatzen da, baina beti biografia pertsonala jarraitzen dugu. Protokoloek maiz ez dute balio, beharrezkoa da kasuan kasu tratatzea. Familia batentzat tontakeria bat dena, agian beste batentzat ez. Edo haur batentzat kontatzea erraza dena beste batentzako ez, nahiz eta familia irekita egon eta konta dezala eskatu. Faktore asko sartu ohi dira jokoan.

**Aner:** Baina helburua da ume hori ume izatea, den modukoa eta horregatik gizartean arazorik ez izatea bere orientazio edo identitateagatik.

### **Nafarroako osasungintzan ere aldaketak egiten ari dira...**

**Amaia:** Ekainean atera zen LGTBI legea, Nafarroako Gobernuarekin eta LGTBI kolektibo askorekin batera egin dena. Beraz, lege hori bada neurri batean errealitatearen isla. Osasungintzari dagokionez, aldatzen dena da despatologizatu egiten direla kasu hauek. Ea poliki-poliki





gainerako alorretan ere aldaketak gertatzen hasten diren...

### **Aner, zenbat urterekin hasi zinen konturatzen mutilak zenituela gustuko?**

**Aner:** Txikitatik arraroa nintzela pentsatzen nuen! [Kar, kar, kar]. Arraroa, ezberdina nintzela bai, baina hamabost urte nituen arte ez nuen pentsatzen horregatik izango zenik. Ni orduan ohartu nintzen. Nik asko sufritu nuen. Eskola izugarri zaila izan zen niretzat. Irakasleen aldetik ere ez nintzen onartua sentitzen. Adibidez, behin irakasle batek neskek neskekin eta mutilak mutilekin ibili behar genuela esan zigun eta ni neskekin ibiltzen nintzen, niri futbola eta pilota ez zitzaizkidan gustatzen. Irakasleak hori esan zuenean, neskek nirekin egon nahi izateari utzi zioten eta hiru urtez bakarrik ibili nintzen eskolan eta irakasleek hori ikusi eta ez zuten ezer egiten. Asko sufritu nuen. Eta min ematen dit oraindik ere, gaur egun, hori gertatzen dela kontatzen didatenean.

**Amaia:** Kontua da, diskurtsoaren baimena aldatu dela, hau da, gauza gehiago baimentzen dira, baina ezberdintasuna onartzeko ez dira bideak eratu. Ikastetxeetan esaterako, hezkuntza sexuala oso tarteka eta gaineratik lantzen den ikasgai bat izaten jarraitzen du. Ekonomikoki ere ez dute horretarako laguntzarik izaten eta lau orduko saioak izaten dira. Ez da lantzen alde gizatiarra eta emozionala. Ziurrenik irakasle askok behar horretaz jabetzen dira, baina ez zaie baliabiderik ematen. Akademikoki kontuan hartzen ez den gai bat da eta hori ez baldin bada aldatu, sakontasunean pertsonak ez gara asko aldatu. Horregatik, ez nau harritzen gaur egun, oraindik ere ikastetxeetan edo lan arloan halako egoerak gertatzea. Beharrezkoa da bakoitzaren ezberdintasunak kontuan hartzea eta horiek kontuan hartuta heztea.

**Aner:** Aniztasunean heztea!

**Amaia:** Hori da! Ulertu behar dugu Lekunberriko mutil gehienek pilotan jokatzeko dutela eta jokatzeko ez duten hiru mutil horiek ere Lekunberriko mutilak direla.



### **Zein gomendio emango zenioke momentu honetan bere orientazio edo identitateagatik gaizki pasatzen ari den irakurle horri?**

**Amaia:** Laguntza bila dezala. Hona deitzeko edo etortzeko ez duela zertan adinez gorakoa izan eta informazioa eskatzeko lasai. Gertatzen zaiona, gertatzen ari zaiola eta hori onartzea dela lehenengo pausoa. Horrekin ez dut esan nahi onartuz gero ongi eramango duzunik, agian onartu arren gaizki pasako duzu, baina hor dago eta horrekin aurrera egin behar da. Eta aurrera egiteko baliatu zaitez inguruan dituzunez, familia bada familiarekin, ez badu funtzionatzen lagunekin, horiekin ez bada beste batzuekin...

**Aner:** Hemen bera den bezala errespetatuz tratatuko dugula eta laguntzeko prest gaudela.

**Amaia:** Hemen familia edo pertsona horrek nahi duen horretaz hitz egiten dugu. Gure funtzioa taxilariarena da. Guk kaleak ezagutzen ditugu, zein bide dauden. Familia taxira igotzen da eta nora joan nahi duen esaten dionean taxilariak esango dio zenbat bide dauden horra iristeko eta beraiek erabaki beharko dute nondik joan eta zein abiaduratan. Poliki, azkarrago, gelditu hemen...

Erritmoa familia edo pertsona horrek markatu behar du. Baina batez ere gaizki pasatzen ari den pertsona edo haur horren senideei esango nieke lagundu dezatela, ingurukoek onartzen ez badute benetako kalbarria izan daitekeelako.

*“Edozein saio oinarri sexologikotik planteatzen da, baina beti biografia pertsonala jarraitzen dugu”*

## “Hemendik urte batzuetara naturalagoa izango da eta ez da jakintzat emango heterosexuala zarenik”

Kattalingunek Lekunberrin eskaini zuen hitzaldiaren harira sortu zen gazte taldeko kide dira Paula Etxarri (16 urte) eta Aiora Irastortza (18 urte). LGTBI kolektiboaren errealitateari buruz sentsibilizatzeaz gainera, feminismoa eta beste hainbat borroka aurrera eramatea du helburu taldeak.

### Erraza al da homosexuala izatea Lekunberrin?

**Paula:** Nik hasieran beldurra neukan, baina orain, jendeak nola hartu duen ikusita ongi, ez da horren zaila izan.

**Aiora:** Nik uste dezente normalizatu dela. Azken urte hauetan aurrera-pauso handia eman da.

### Non uste duzue dagoela egiteko gehiago gazteen artean ala helduen artean?

**Paula:** Helduen artean.

**Aiora:** Guk eredu asko ditugu, Youtube, telebistan, sare sozialetan... Hitzaldiak eta halako egitasmoak garrantzitsuak dira, baina uste dut etxean gurasoek beti gazteoi erakusten diguten modua guk ere asko dugula erakusteko. Kasu honetan gai horiei buruz guk gertuagotik ezagutzen dugunez, horri buruz hitz egitea gure ardura ere bada.

**Paula:** Nire etxean bertan, gai honi buruz gehiago jakin dute niregatik, kanpotik baino.



Paula Etxarri eta Aiora Irastortzaren ustez gazteena ere bada LGTBI kolektiboari buruzko sentsibilizazioaren borroka. Arg: Labrit.

### Eta erreferenterik ez zenuen?

**Paula:** Ez. Aner izan da neurri batean gertu izan dudana erreferente bakarra... [Kar, kar, kar].

**Aiora:** Ez daude asko. Nik uste hemendik urte batzuetara naturalagoa izango dela eta ez dela jakintzat emango heterosexuala zarenik. Eskolan bertan ez digute aukerarik eman bestelako identitateak edo orientazioak ezagutzeko.

**Paula:** Adibidez sexologia etortzen zenean, harreman heterosexualei buruz bakarrik hitz egiten zigen.

### Normalizatuago dago nesken artean mutilen artean baino?

**Paula:** Bai.

**Aiora:** Neska kuadrilla bati galdetzen badiozu ea neskekin harremanik izango ote luketen, gehienek ez lukete ezezko borobilik emango, ate hori

irekita uzten dute. Irekiago daude probatzerara. Mutilak askoz ere itxiagoak dira orokorrean. Errazagoa da homosexuala zarela esatea neska kuadrila batean, mutil koadrila batean baino.

### Eta homosexualitateaz ari gara... Baina bisexualitateaz edo transexualitateaz hitz egingo bagenu?

**Aiora:** Okerrago oraindik! Nik askotan pentsatzen dut denak bisexualak garela... [Kar, kar, kar]. Baina egia da transexualitatearen kontua edo intersexualitatearena askoz arrotzagoak direla eta gazteontzat ere nahiko ezezagunak direla. Horregatik, garrantzitsua da informaturik egotea. Eta talde honen bitartez ekintzak antolatu nahi ditugu.

**Paula:** Eta herritarrak egingo diren jardueretan parte hartzera animatzen ditugu.

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL LEKUNBERRI**  
*Suaren kontrako plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**IORTIA** EL INCA DENTRAL - HORTZ BILPUKA  
Juanjo Gait García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



## Txarrenari onena



●● Andrea Etxarri

Aupa Mikel! Azken egunetan zerua gris egon ondoren, pasa den larunbatean zerua bera ere argiz bete zuen eguna iritsi zen. Altsasukoen kasuan gertatzen ari den injustizia, lau haizetara zabaltzeko bilkura. Kasu honetan, gazte hauen gurasoek errespetu handiz bideratutako aldarrikapena, bihotza bertan jarrita, abestiak dion moduan txarrenari onena ateraz.

Gurasoetako batek zioen kostea egiten zaiela zuzenbideko estatu batean bizi garela sines-tea, izututa daudela. Aipamen gogorra da, hala ere, ez da harritzekoa, guzti hau hasi zen egunetik honaino gertatutakoak sortu izanen dien saminean pentsatuz gero. Jar gaitzen hurrengo egoeran: Imajina ezazu gorrotoak gidatzen duela gure araudia, legeak eta epaiak sentitzen dugun gorrotoaren arabera egiten ditugula. Mendekuak zehazten duela nolakoa izan behar den norberaren kondena. Lehentasuna, gorrotoa amaieraraino eraman eta ondorioetan pentsatu gabe ekitea dela. Proporzionaltasuna borrokatu behar den zerbait izatea. Zure jaioterriaren arabera epaia ezberdina izatea. Terrorismo hitza erraztasun handiz erabiltzea. Zure inozentzia frogatzeko aukera eman aurretik zure askatasunari 500 egunez kateak jartzea.

Kasu guztietan bezalaxe, inplikazio emozionalaren arabera, egoeraren aurreko erreakzioa ezberdinak izatea da ohikoena. Ulergarria da egoerak zuzenean eragiten edo samintzen dituen pertsona horiek haien sentimendu edo epaiak kontrolatzea zaila izatea. Ezin dugu onartu edo errespetatu, zuzenean kasuak eragiten dien (eta etxean lasai aski) eta epaiketa paraleloak egiten ari diren pertsona horien erreakzio esajeratua, batzuen konfrontazioa eta beste batzuen babesa jasotzeko asmoz. Gizatasuna galdu al dugu? Agintari batzuen helburuak ez ditut argi ikusten: bizikidetzeta hobetzea ala herria bereiztea? Aholku bezala, kritika on baten ezaguerria hau omen da: aldaketa bilatzea, eta ez kritikatzeko eta mintzea.



●● Mikel Hernandorena

Kaixo Andrea!! Esaera batek dioten moduan, gezurrak hankak motzak ditu. Gezurrak askotan dakartza gorrotoa, mendekua eta norbere burua zuritzeko eta babes-teko asmotan, bestea zapaltzea. Horregatik, zuk diozun bezala, txarrenari onena ateraz, guraso hauek izaten ari diren adorea eta kemena izugarria bezain txalotzekoa da.

Bestalde, nabaria da gorrotoa, izua eta mendekua direla nagusi azken hilabete hauetan.

Altsasuko gazteez gain, Kataluniako Parlamentuko kide asko epaituak izaten ari dira. Altsasuko gazteentzat oso erraz aplikatzen da terrorismo hitza, baina Sanferminetan neska bat bortxatzeagatik ez da termino bera erabiltzen. Noski, euskaldunak izateagatik jendea oso erraz kondena daiteke. Kataluniakoa eta independentista izateagatik jendea kartzelara izugarritzko erraztasunarekin bidaltzen da. Ez da hala beste lurralde batzuetakoak diren beste batzuen kasuan, "La Manada"rena esate baterako. Oraindik esperoan nago ea Sanferminetako pizti hauen epaia noiz aterako.

Txarrenari onena ateraz ere, egiak gezurra gailentzen duela ikusten da nabarmen. Adur Ramirez de Alda, esate baterako, egun horretan gorritz jantzita ikusi zuela testifikatu zuen tenientearen emazteak. Bai Altsasu Gurasoak plataformak bai ETB Kantxak publikatutako bi argazkietan argi eta garbi ikusten da Adurrek egun horretan kamiseta beltza zeramala. Adurrek auzian esan zuen egun horretan Koxka Tabernan ez zela egon, ohera gertaera jazo baino lehen joan zela.

Amaitzeko, lehengo eguneko testigantza eman ondoren, Isabel Pozuetak, Adurren amak, bere semeari emandako muxu eta besarkada itxaropenaren isla direla argi eta garbi ikusten da. Itxaropena eta justizia eskatzen duten besarkada eta muxua. Txarrenari onena ateraz, maitasuna islatzen duten besarkada eta muxua. Egiak gezurra gailentzen duela azaleratzen duten besarkada eta muxua.



## BERTSO AFARIA AZKARATEN MAIALEN LUJANBIO ETA JULIO SOTOREKIN

Azkaraten urteroko bertso afaria egingen dute datorren maiatzaren 26an. Afarria Balerdi elkartearen izan da gaueko 21:30etan eta bertan izanen dira Maialen Lujanbio eta Julio Soto bertsolariak. Afalostea trikitilariak ere girotuko dute. Txartelak dagoeneko salgai daude Arribeko Surtidorean eta Beteluko ostatuan. Txartelak aldeztatik hartuta 25 euro eta bertan 27 eurotan.



## “EZ DA ABUSUA, BORTXAKETA DA”

2016ko sanferminetako talde bortxaketaren auziaren epaiak haserrea piztu du eta asko izan ziren joan den apirilaren 26an kalera irten ziren herritarrek. Betelun elkarretaratze zaratsua egin zen eta gazte eta heldu, gizonezko nahiz emakumezkoak elkartu ziren sententziaren aurkako desadostasuna adierazteko. Lekunberrin elkarretaratzea deitu zuten hurrengo egunean. Nafarroako nahiz estatu espainiar osoko herritarrek, eragileek, eta baita politikariek ere euren haserrea adierazi dute sare sozialetan, “Ez da abusua, bortxaketa da” dioten mezuak zabaldu dira. Nafarroako Gobernuak dagoeneko errekurtsioa aurkeztuko duela aurreratu du.

## EDURNE LIZEAGAREN OMENEZKO KONTZERTU BEREZIA ESKAINI DU ABESBATZAK

Aste Santuetan urteroko kontzertua eskaini zuen Jesus Jaimerena Abesbatzak. Aurten gainera inoiz baino bereziagoa izan zen, Eguberrietan hil zen Edurne Lizeagari omenaldi berezia egin baitzioten, abesbatzako kideek. Gainera, irudi berrituarekin aurkeztu ziren, orain arteko atorra zuria eta txaleko koloredunak jantzi beltzengatik eta lepoko urdinarengatik ordezkatu zituzten. Entzuleek ere beste behin ez zuten huts egin eta eliza goraino bete zen.

## TXOKOLATEZ GOZATUTAKO IPUINAK TXIKIENENTZAT

Joan den hilean Virginia Albira eta Lur Korta ipuin kontalariak bi saio eskaini zituzten Mitxasenean. Bost eta zazpi urte bitarteko haurrek ipuinez eta txokolatzeko ogitartekoez gozatu zuten. Lehen saioa arrakastatsua izan zen oso, nahiz eta ez zen erraza izan denak euren lekuan gelditu mantentzea. Bigarren saioan haur gutxiagok parte hartu zuten, baina adi-adi egon ziren.





## ETA ZU EZ ZARA TAULA GAINERA IGOKO?

Hilabete baino ez da falta Mailope kantuan kontzerturako. Ekainaren 9an, Beteluko plazan izanen da eta Mailopeko irakurleak taula gainera igoko ditugu beste behin. Maiatzean hasiko dira bertan parte hartzeko entseguak. Beraz, oraindik ez baduzu ize-nik eman, mugi eta jarri harremanetan: 638 652 339 / [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net). Animatu!



## MARTXAN DA MAILOPE.EUS ATARIA

Hemen da Mailope aldizkariaren atari digitala. Mailope.eus atarian aleak digitalizaturik irakurtzeko eta bazkide egiteko aukera ematen dizuegu. Baita hilabeteroko ekitaldi nagusien argazkiez gozatzeko edo aldizkarian kaleratzea gustatuko litzaizukeen edukia bidaltzeko ere. Horrez gain, eskualdeko webguneen estekak eta gure Mailopelarien blogak aurkituko dituzu.

Bisita ezazu [mailope.eus](http://mailope.eus)!



## INTZAKO HERRIAK OMENALDI BEREZIA EGIN DIO JOXE RAMON IRIARTERI

Joan den apirilaren 22an omenaldi berezia egin zioten Intzako herritarrek iazko irailaren 21ean zendu zen Joxe Ramon Iriarteri. 34 urteko gazteak lan asko egin zuen herriaren alde eta herritarren alde. Hala nabarmendu zuten omenaldian: *"Beti prestu edozein lanetarako, oso maitatua eta maitasuna zabaltzen zuena lagunaren artean, lagunaren laguna"*. Hala deskribatzen du herriko lagun taldeak: *"Intzatarren irria, herriaren distira, etxeoen argia eta plazaren arima"*. Herriko plazan egin zen omenaldian etxeoak, herritarrak eta lagunak elkartu ziren. Plazan bere argazkia daraman plaka eder bat jarri zuten eta ekitaldia txalaparta, bertsolari, trikitilari, txistulari eta dantzariekin osatu zuten. Hamaiketako baten bueltan amaitu zuten omenaldi beroa.



# Inork kontatzen ez dituenak

Megafonoak nire trena iristear dela esan berri du, treneko txartela azken aldiz begiratu dut, nire bagoia oraindik ere zazpigarrena da, ez da ezer aldatu duela bost minutu begiratu dudanetik. Oraindik ere, leiho aldeko eserlekua da nirea. Iritsi da azkenean, atean begiratu dut zein den bagoiaren zenbakia eta nirea atzerago dago, maleta hartu eta korrika hasi naiz, ez dut trenak ihes egiterik nahi. Iritsi naiz nire atera, maleta hartu eta trenera igo dut eta ni atzetik, arnasa hartu dut, ez dut trena galdu, eskerrak. Eserlekuen zenbakiei begira jarri naiz eta nirea aurkitu dut, esan bezala leihoa. Maleta eserleku gainean dagoen apalean utzi dut, nire buru gainean egingo du bidaia. Eseri eta prest nago trena abia dadin.

Azken bi urte hauetan behin eta berriz egin dut gauza berbera, behin eta berriz korri, behin eta berriz trenera igo, maleta utzi, nire eserlekuan eseri eta leihotik ikuskatu nola aldatzen den paisaia hiru orduz. Baina gaurkoan nire begirada ez da leihora bideratu, gaurkoan liburu bat daukat esku artean, Kleopatrari buruz hitz egiten duen liburua. Eta konturatu naiz kontatzen diren istorio gehienak pertsona handi, boiteretsu eta "garrantzitsuen" istorioak direla. Gainerako pertsonak inoiz bizi izan ez balira bezala, isiltasunean geratzen dira, ezerezean. Eta mutututako istorio horiei ahotsa ematea erabaki dut.

Gizon baten istorioa kontatuz hasiko naiz.

Gizon hau Katalunian jaio zen, ez zuen izan ikasteko aukerarik eta la-



Arg: Unsplash.

nean jarri behar izan zuen. Han eta hemen, igeltsero, zerbitzari... Behin kamioi bat erosi zuen arte. 20 urtez kotxeak hara eta hona eraman eta ekarriz. Orduan bere bizitzan aldaketa handi bat gertatu zen eta kamioia autobus batengatik aldatu zuen. Katalunia utzi eta Gasteizera joan zen bizitzera. Orain autobusa gidatzen du, hara eta hona pasatzen du eguna. Asteburuetan mendiz mendi ibiltzen da bere argazki kamera txikiarekin han eta hemengo bazterrei argazkiak eginez. Eta noizbehinka Kataluniara egiten du bidaia amari bixitan.

Istorio arrunt bat, pertsona guttiz arruntaren historia ezta? Baina arrunta izango balitz gizon honen istorioa ez litzateke gizon hau izango.

Gizon honek kamioia autobusagatik aldatu zuen baina oraindik ere ibilgailuak garraiatzen jarraitzen du. Lau gurgpileko kotxeak bi gurgpileko gurgildun aulkiengatik aldatu ditu. Han eta hemen barrena ibiltzen da ezindutako pertsonen mugitzeko erraztasuna eta mundua ezagutzeko aukera emanez. Katalunia utzi eta

Gasteizera bizitzera joan, lehen maitasun izan zuen neska berri izan zuenean. Izan ere hamalau urte bete zituzten arte elkarrekin egon ziren, neska aitak jakin eta haserretu zen arte, orduan alde egin zuten Kataluniatik eta gizonak ez zuen neska berri gehiago izan, egun batean eskutitza jaso zuen arte. Asteburua mendiz mendi pasatzen du maite duen neska horrentzat argazkiak ateraz, mendiarekin amets egiten du neska eta. Kataluniara egiten du noizbehinka bidaia, txikitik hil zitzaion amaren hilobira.

Gizon arrunt honek, ama oso gazte galdu zuen, ahal moduan egin zuen aurrera eta urte batzuk beranduago bere maitea bere ondotik aldentu zuten. Agian ez du mundua aldatu, agian bizitza xumea izan du, baina edonork ez du txikitako maitaren eskutitza jaso eta gurgildun aulkian dagoela jakitean dena utzi eta bereganatu alde egiten. Edonork ez da gai autobusa erosi eta ezindutakoei hegalak emateko.

Milesker zure istorioa kontatzen uzteagatik.



luze

Leire Aranburu



# Halabeharrez gertatu

Harluxet hiztegia honako definizio hau aurki daiteke: *“Patua edo halabeharra, egungo eta geroko gertakizunak eta horien funtsa eta arrazoia xedatzen dituen indar naturaz gaindikoa eta inbertsonala da. Kontrakoa erabakimen aske edo askatasuna da. Mendebaldeko eta ekialdeko kultura gehienetan, era zorrotz edo zabalean, patuarekin sinetsi dute, batez ere, predestinazioarekin lotuta badago”*. Aspaldi aipatzen edo sinesten dugu gizakiok patuan.

Kasu askotan, atzera begiratuko bagenu, geure bizitzetan eta geure senide eta arbasoen bizitzetan, ikusiko genuke gertaera eta data batzuk errepikatu izan direla. Errepikatzen dira gaixotasunak, esaterako, eta genetika kasu batzuetan azal dezake zergatik den hau. Baina izaerak? Orduan esan genezake ikasitakoak direla. Eta gertaerak? Nire kontsultan, maiz aurkitzen dugu familia batean errepikatu direnak, nahiz eta zaila izan zoriaren kausa direla sinestea. Orduan zergatik gertatzen dira?

Duela aste batzuk, Abaltzisketako Ane etorri zen nire kontsultara. Ezkonduta egon da hamar urte zaharragoa den Mikelekin eta hiru ume izan dituzte. Maitasuna aspaldi bukatuta, duela bi urte banatzea erabaki zuen Anek. Baina harremana jasangarria izanik, momentuz eraiki zuten etxe berean bizitzen segituko dute, inongo elkar bizitzarik egin gabe, eta umeak txandaka zainduz.

Azken hilabeteotan, dena den, harremana gaiztotu egin da eta Mikelek Aneri etxetik alde egiteko presionatu du, batzuetan modu



Arg: Unsplash.

txarrean ere. Anek ez du ezer ulertzen, bakarrik aurkitzen da, maiz gertatu izan zaion bezala. Izan ere, txikitatik nahiko bakarrik eta berezia sentitu da, beste ume guztiek baserri lanek egin behar izaten zituztelako eta berak ez. Izan ere, bere familiak kaleko etxe bat baino ez zeukan eta bertan ez ziren baserri lanak egin behar. Hortaz, irakurri, jolastu, musika ikasi eta antzekoak egiten zituen udan eta denbora librean, bere adinekoak baserri lanetan ari ziren bitartean.

Anek ez dauka gertu bizi den anaia edo ahizparik eta, bai aldiz, Mikelen familia, baina ia hasieratik sentitu du familia honek ez duela maite. Are gehiago, baztertu eta oso gaizki hartzen duela. Ane saiatu izan da haiengana hurbiltzen eta egiten dizkietenak gaizki ez hartzen, baina ez du ezer lortu eta ez du ulertzen zergatik gertatu izan zaion hori guztia.

Kontsultan eman dizkit azalpenok eta poliki-poliki aztertu ditugu bere eta Mikelen familiaren xehetasunak. Horrela konturatu gara nola, Mikelen aitona ezkondu eta hiru alaba izan ondoren emaztea hil egin zen halako batean. Jakina, ume gazteak izanda eta baserrian dagoen lana kontuan hartuta, aitona berriz ezkontzea erabaki zuen. Horretarako bera baino dezente gazteago zen neska hartu zuen. Neska hau, herri txiki batekoa bazen ere, kaletarra zela esan zitekeen. Familian oso gaizki hartu zuten neska, bai alaba gazteek, bai familiako beste kideek ere eta asko sufritu zuen. Hortxe ulertu du Anek zer gertatu ohi zaion Mikelen familiarekin, berriz errepikatu baita, neurri batean behintzat. Mikelen aitona emazte hura ez bezala, sufritzen segitu beharrean, Ane banatu egin da, alegia, sufri-menduari bukaera eman dio.

Geure bizitzetan gertatzen direnak ulertzea oso lagungarria izan daiteke, askotan errepikatzen zaizkigulako aurretik familian gertatutakoak. Errepikatzen dira, bere garaian konpondu edo guztiz bukatu gabe geratu zirelako. Neurri batean, hortaz, familian itxi gabe ditugunak, ondorengoei uzten zaizkie, haiek ixten saiatzeko. Horrela errepikatzen dira, zoritxarrez, minak eta sufri-menduak. Geure esku dago hauek aurkitzea eta, betiko itxi eta bukatzea.



Zabal

Koldo Nuñez

# Mende oso bat eta hamaika pasadizo

*Mendeurrena, bizitza oso bat, behar bezala ospatuta joan da Margarita Rekalde.*

*Joan den apirilaren 19an elkarriketatu genuen eta bi egun geroago zendu zen. Egin diezaiogun bada merezi bezalako omenalditxo.*



Margarita Rekaldek 100 urte bete zituen joan den apirilean. Arg: Rekalde familia.

Burlatako Siervas de María egoitzan jarri genuen hitzordua, bertan bizi izan da azken hamalau urteotan. 100 urte bete berriak zituen eta oraindik urtebetetze ospakizunak sortutako emozioa barruan. 1918ko apirilaren 8an jaio baitzen Margarita. Margarita Rekalde Etxarri Igarabide Astiz, argi aski izendatzen zituen bere lau abizenak, berarentzat laurak garrantzitsuak baitziren. Beteluarra zen jaiotzez, baina Arribeko Atabalen eta Baraibarko Juandurritzenean ere bazuen bere izatearen puska bat.

Bere bizitzako lehen 41 urteak jaiotetxean eman zituen, Beteluko Mitxikonean, Rekaldearren base-rrian. Hangoa zuen aita, Angel eta ama berriz Baraibarko Juandurritzenekoa, Manuela Etxarri.

Margarita zortzi anai-arrebetan gazteena zen, bere aurretik jaio ziren Gregorio, Mikaelita, Abelina, Markos, Manuel, Maria eta Marcelina. Base-rrian bizi zen familia, gurasoekin, aitona-amonekin eta Juandurritzene-ko osaba Markosekin batera.

*-Gure aitona alkatea izan zen, baita nire aita ere, eta orain hauek dabiltza (ilobari erreferentzia eginez), baina uste dut ordukoek hauek baino gehiago agintzen zutela. [Kar, kar, kar].*

*Gogoan dut telegrafoa jartzera etorri ziren langileak ez zirela mezetara joaten eta nire aitona hala esan omen zien: "Alde hemendik, ez dugu telegraforik behar! Hemen mezetara lehenbizi! Halakoxea zen aitona Gregorio!"*

Hain zuzen ere, aitona Gregorio alkate izan zen garaian eraiki zen Be-



Goian aurtengo urtebetetze eguneko ospakizunean senideekin. Behean Julia Gurutzeaga irakaslearekin daude besteak beste, Ataxeneako Joanita, Adelaida Trueba, Joangoneako Graciana, M<sup>a</sup> Ángeles Soravilla, Encarna Arin, María Agirre eta Margarita bera (atzeko ilaran dago kopeta ileduna).



teluko bainuetxea. Eta haren ondoan eraiki zuen hotela, Martiñenean.

Esne-behiez gain oiloak, txitak, txerriak... denetik bazen baserrian. Ez omen zen negoziarik falta, baina baita lana ere. Margarita larunbatero jaisten zen Tolosako azokara Atalloarran, eskutan arrautzez eta oilas-koz betetako bi saski hartuta.

-Gustatzen al zitzaizun Tolosara joatea?

*-Noski! Handik dirua ekartzen genuen.*

Txerrikumeak ere hazten zituzten, hamar edo hamabi zerrama zituzten orduan. Margaritak mimo handiz zaintzen zituen.

*-Nik oso ongi zaintzen nituen. Azpiak beti lehorrak eta esnea ematen nien urarekin nahastuta. Berehala gizentzen ziren. Mokoroako Lontxo Otamendiri saltzen genizkion, baina kexatu egiten zen mimatuegi zeudela eta! [Kar, kar, kar].*

Baserrian bazen nahikoa lan, baina halako familia handiak aurrera ateratzeko edozein lan aukera ongi-erria izaten zen. Margaritaren aita goizero Lekunberrira igotzen zen idi pareta hartuta. Plazaola trenean iristen zen merkantzia hartu eta Betelura ekartzen zuen, bertan banatzeko.

Sagardotegia ere izan zuten etxean. Amak bazuen anaia kanonigo bat Orreagan, Don Pedro, harrek Betelun zituzten sagarrondoak ikusita eman zien sagardoa egiteko ideia. Amak eta Margaritaren anaia zaharrenak, Gregoriok sagardoa egiten ikasi zuten eta etxe ondoan tolarrea jarri zuten. Urte askoan zehar saldu



zuten Mitxikonean sagardoa. Aralar izenarekin saltzen zuten, botiletan.

Margarita herriko eskolan ere ibili zen 15 urte bete bitartean. Gaur egun elkarte dagoen eraikinean zegoen eskola, bai neskena eta baita mutilena ere, baina garaiko hezkuntza ereduak ezartzen zuen moduan, behar bezala banaturik. Eskola garaiko oroitzapen onak ditu Margaritak.

*-Han ikasitakoarekin egin dugu bizitza, baina ez diot behin ere utzi irakurtzeari. Nik hiru lagun nituen, Baldeneako Maria Goikoetxea, Labaie-neako Lourdes Urrizalki eta Etxetxoko Ramonita Yeregi. Laurak elkarrekin ibiltzen ginen beti. Baina denak hil dira, ni bakarrik gelditzen naiz.*

Lagunekin eta gurasoekin, beti erderaz hitz egiten zuten orduko gazte gehienek Betelun, nahiz eta guraso biak euskaldunak izan eta beraien artean euskaraz egin. Araitzen euskarra hobeto mantendu zen. Harreman ona zuten orduan arazitarrakin. Margaritaren amona Arribekoa zen,

Ramona Igarabide, Atabalenekoa eta amaren aldeko amona berriz Juandurritzeneakoa, Mikaela Astiz. Txikitatik joaten ziren Baraibarrera egun batzuk pasatzera. Festetan ere askotan joaten ziren sukaldean eta zerbitzatzen laguntzera.

*-Oinez joaten ginen, Errazkindik. Behin, bost edo sei urte nituela, amona zaintzera joan ginen ahizpa eta ni, baina ama etxean utzi izanaren penaz negar batean hasi nintzen. Juandurritzenekoek esnea zaldien gurdian Lekunberrira eramaten zuten esnea eta nik momentu hori aprobetxatu nuen gurdian sartu eta Lekunberrira jaisteko. Han Beteluko Anastasioren diligentzian igo eta Betelura. Ez dakit nork ordaindu izan zuten bidaia hura!*

Margaritaren garaian, emakumezko gehienek ez zuten ikasten jarraitzen 15 urtetik aurrera.

Igandetan, Elizarekiko betekizunak egin eta gero, iluntzeko zortziak edo bederatziak arte paseoan ibiltzen ziren neskak.



Margarita sagarrondoetan (1936. urtean ateratako argazkia).

nintzen hamar egun pasatzera. Egu-  
nero nire bila etortzen zen paseatzera  
joateko, baina egun batean, Pasa Poga  
izeneko jatetxe batera eraman ninduen.  
Hura zen hura dotorezia. Kabaret bat  
zen, baina neska haiek han lan egiten  
zutela ohartu nintzenez, ez zitzaidan  
ongi iruditu. Hanka sartu zuen eta hor-  
txe bukatu zen. Ondoren, Betelura eto-  
rri nahi zuen ni ikustera baina ezezkoa  
eman nion. Herrian harekin ikusten  
baninduten ezkondu egingo beharko  
nuen, ezin ibiliko nintzelako batekin eta  
bestearekin.

-Zergatik ez?

-Oi, oi, oi... Nik amari ez nion esan  
halako konpromisoa hartu nuenik eta  
Madrilera bera ezagutzera joan nintze-  
nik. Eta gero Kasedako beste bat eza-  
gutu nuen. Azukre merkataria zen, ni  
baino zaharragoa. Eta osaba Markosek  
hala esan zidan: "Zaharra zertako?". Eta  
egia esan ohartu nintzen niri ere ez nin-  
duela gehiegi konbentzitzen.

Margaritak ezkontza bizi osorako  
konpromisoa zela ulertzen zuen, be-  
hin ezkonduz gero ezin izango zuela  
banatu, bikotea erdipurdikoa edo  
txarra izanik ere. Eta bera ez zegoen  
prest horretarako.

Mitxikonean familiarekin bate-  
ra bizi zen Juandurritzeneko osaba,  
Markos Etxarri, amaren anaia zen. San  
Migelen kapilau egon zen 42 urtez.  
Euskalduna zen, euskal nazionalista.  
Garai hartan Santutegian nazionalista  
asko elkartzten ziren eta Gerra Zibila  
lehertu zenean Markos San Kristo-  
balgo Gotorlekuan sartu zuten preso.  
Azkenean, bi iloben artean bertatik  
ateratzea lortu zuten eta Margaritaren  
ahizpetako bat zegoen gogoeta espi-  
ritualak egiteko etxe batera eraman  
zuten. Baina dirua amaitu zitzaionean  
handik atera behar izan zuen eta Bete-  
lura etortzea erabaki zuen, arrebaren  
etxera. San Kristobaletik aske irtetea  
lortu zuen, baina debekatu egin  
zuten San Migelera joatea eta publikoki  
mezak ospatzea. Eta halaxe bizi izan  
zen Mitxikonean.

18 urte zituen Margaritak Gerra Zi-  
bila hasi zenean...

-Zer gogoratzen duzu gerra garaiaz?

-Beteluko Karmelo Arin hil zuten,

-Zuen adineko mutilekin hitz egi-  
ten al zenuten?

-Bai, denetarik. Eta dantzaldirik bal-  
din bazen, plazan jota dantzatzen ge-  
nuen. Jota bakarrik, "agarratuan" ez!

-Zergatik ez?

-Bekatua zelako! [Kar, kar, kar]. Don  
Fermin Lasarte leitzarra genuen orduan  
herriko apaiza. Gu oso erlijiosoak ginen.  
Eta festetan gainerako neska denak  
ateratzen ziren dantzatzera, baina guri  
ez ziguten uzten. Martiñenean zegoen  
hoteleko atetik hango dantzaldia ikusi  
izana ere konfesatzen genuen orduan.  
Orain oso ezberdina da dena, baina ga-  
rai hartan "agarratuan" dantzatzeaga-  
tik Hijas de María taldetik bota egiten  
zintuzten. Guk jota bakarrik dantzatzen  
genuen, inor ukitu gabe!

Mitxikoneko gazteena ez zen inoiz  
ezkondu, nahiz eta aitortu ezkongai  
asko izan zituela. Lehena armadako  
kapitain bat izan zen, Baraibarkoa  
zen baina Iruñeko Amaya kalean bizi  
zen. Jatorra omen zen, baina ez bera-  
rekin bizitza osorako ezkontzeko adi-  
na. Gero bigarren bat ezagutu zuen,  
Kasedan jesuita ibilitakoa. Bere anaia  
Manuelen bitartez ezagutu zuen.

-Zer pasa zen harekin?

-Madrilera joan nintzen bera eza-  
gutzera, han zebilelako irakasle. Bete-  
luko neska batek, Gregoriak, Madrilen  
bi jatetxe zituen eta haren etxera joan



La Legión de María taldeko kideekin Londresen.



Errementaldegia. Fusilatzen eraman aurretik konfesatzeko aukera eskaini zioten eta ezezkoa eman eta aurotoan sartu zuten. Ez genuen gehiago ikusi. Bost anai-arreba zituen, Nicasio, Rafaelito, Vicenta, Rufina eta Encarna. Gero familiak herritik alde egin zuen eta etxea saldu egin zuten.

-Zergatik fusilatu zuten?

-Mola bainuetxean mitin bat eskaintzen ari zela ¡Viva el comunismo! oihukatu zuelako. Ez zen hildako gehiagorik izan Betelun. Ondoren, estraperloarekin ibili zen jendea bazen herrian. Lateiko Lorenzo Otamendi famatua zen. Garraiolaria zen eta behin kamioia irinez beteta zekarrela guardia zibilek geldiarazi eta han zer zeraman galdetu zioten. "Salvajes" erantzun zien, "salvado" esan nahian. Ez ziren begiratzera ausartu eta aurrea jarraitzeko baimena eman zioten. [Kar, kar, kar].

41 urte arte baserrian lan egin zuen Margaritak, baina gurasoak hil eta anaia Markos ezkondu zenean Parisera joan zen. Gipuzkoako Benediktinotarren pentsua erosten zuten eta hilean behin Markos izeneko benediktar bat etortzen zen kontuak egitera. Parisera ikastera zihoala esan zien eta Margaritak aukera aprobetxatu eta han lana bilatuko ote zion eskatu zion. Handik hamabost egunetara bere gutuna jaso zuen eta hantxe joan zen, frantsesik jakin gabe. Anaiak frantsesezko esaldien hiztegi batekin eta Parisko kaleen mapa batekin joan zen. Horrela moldatu zen.

Dirua irabaztea zuen helburu nagusia. Gogor lan egitera ohitua zegoen Margarita. Baserriko lana garai hartan ez baitzen askoz ere arinagoa. Parisen lan asko egin arren bizitzaz gozatzeko eta bidaiatzeko aukera izan zuen. Gainera, Legión de María izeneko talde bateko lehendakari izan zen. Bertan zeuden emigranteei lana bilatzen eta kontratuak egiten laguntzen zien talde bat zen. Talde hartako kideekin egindako bidaiei esker, Europako hiri asko ezagutu zituen.

25 urte eman zituen Margaritak Parisen. 65 urterekin erretiratu eta

## Antzara-jokua

Beteluko inauterietan jendea emakumez jantzen zen eta aurpegia esaltzen zuten. Mitxikonekoak ez ziren oso inauteri-zaleak, ez zetorrelako garaiko erlijioarekin bat, baina Margaritak gogoan du inauterietako antzara-jokua.

"Izugarría zen. Plazan egiten zen. Soka batean antzara bat jartzen zuten zintzilik eta gizonetako zaldietan igota antzararen azpitik pasa eta eskuarekin lepoa erazuten saiatzen ziren. Iltaran jartzen ziren hainbat gizon gerriko gorria jantzita, bakoitza bere zaldian igota eta banan banan pasatzen joaten ziren".

Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen. Barañainen erosi zuen pisua. Hiru milioitan erosi omen zuen eta 70 milioitan saldu zuen Burlatako zaharren egoitzara joan aurretik. Negozio biribila egin izanaz harro dago oraindik. Orduan ere azkar ibili zen Margarita!

-Beste 20 urtez bizi izan zara Barañainen...

-Bai eta 85 urterekin hona etortzeko erabakia hartu nuenean, apaizak ez joateko esaten zidan. Gustura nengoen Barañainen, katekesia eman izan dut bertako ikastetxeetan eta Caritasekin ere laguntzen genuen, baina ahizparekin batera bizi nintzen eta hura hil zenean erabakia hartu nuen. Eta ez naiz behin ere damutu. Jada ezin dut oinez ibili, baina irakurtzea asko gustatzen zait. Hamalau urte daramatzat egoitza honetan eta hemen hilko naiz.

-Betelura bisitan joatea gustatzen al zaizu?

-Urtero joaten naiz, baina orain ez dut inor ezagutzen, nire garaiko guztiak hil egin dira. Tristea da hori... Niri hara eramango naute hiltzean (eta halaxe izan da).

-Nola ospatu duzu aurten zure urtebeteze eguna?

-Izugarría izan zen! Begira hor dituzu argazkiak... Senitartekoak etorri ziren eta meza bat ospatu genuen hemen, bi apaizekin gainera. Eta irteerakoan Barañaingo lagun bat etorri zen eta akordeoia jotzen ibili zen. Mojak ere dantzan jarri zituen. Gero Beteluko ostatura joan ginen bazkaltzera. Nik ez nuen ezer ordaindu! [Kar, kar, kar].

**"Martíñenean zegoen hoteleko atetik hango dantzaldia ikusi izana ere konfesatzen genuen orduan"**

## LARRAUN ETA LEKUNBERRI

## Kontzertuak, mendi-irteerak eta askoz gehiago maiatzeko kultur egitarauan

Hemen da udaberriaren etorrerarekin batera Mitxausenea Kultur Etxeak hainbat eragilerekin batera antolatu ohi duen Larraun eta Lekunberriko maiatzeko kultur egitaraua. Joan den apirilaren 27an eman zioten hasiera Manuel Eziolaza eta Mikel Saralegik heriotza duinari buruz eskainitako hitzaldia-ekin. Kontzertuak, bakarrizketak, antzerkia, hitzaldiak... Hilabete honetan ez dugu aspertzeko aitzakiarik izanen!

**MAIATZEKO KULTUR EGITARAUA**

- 5** - 18:00 "El hombre que empezó a correr" filma San Juan Jubilatua Elkartearen.
- 6** - Bide Berdeen Eguna.
- 8** - 10:00 "Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko" tailerra. Mitxausenean.
- 8** - 18:00 Literatur solasaldia Miren Agur Meaberekin, Larraungo AEK eskalategian.
- 11** - 20:00 Aralar Musika Eskolak eskainitako kontzertua, Kantinan.
- 12** - 19:00 Txanbela Otxotorearen kontzertua San Juan Elizan.
- 12** - Gazteak eta Ttutturre Kirol Elkarte Mendaur mendira. Izen-ematea hilaren 5a baino lehen 659 113 287 telefono zenbakian.
- 13** - Herri urrats. Autobusean joateko izen-ematea: 948 604 582 / 948 504 400.
- 15** - 15:30 Eskolako antzerkia, Ibarberriko DBH1 eta DBH2. Mailako ikasleen eskutik.
- 17** - 19:00 "Erradikalak gara" bertso eta bakarrizketa saioa Kantinan.
- 18** - 19:00 Hitzaldia Aldazko ostatuan.
- 20** - 10:00 X. Argazki rallya Mitxausenean.
- 25-27** - Euskal Herriko V. Kontakt inprobisazio topaketa kiroldegian.
- 26** - 17:30 Euskal Dantza emanaldia Tirikitraukiren eskutik, Mugiron.
- 27** - Ttutturre Kirol Elkartearen ateraldia.

## BARAIBAR

## San Migel goiaingeruak hasi du herriz herriko buelta

Apirilaren 1ean, Pazko egunean ohitura den bezala, Aralarko San Migel Goiaingeruak bere urteroko ateraldi ofiziala egin ohi du Santutegitik. Joxe Mari Zabaletak eman digu horren berri: "Aurtengoan, 81 lagunekin batera egin zuen San Migeletik Baraibar-erako lehen kilometroak. Hitzordua arratsaldeko lau t'erdietan zen, eta Mariano Zubiriak beste behin gidatu zuen Aingerua mendiz mendi. Hurrengo egunean gure zonaldeko herrietan ibili zen, Araitzen, Betelun, Lekunberri, Larraunen eta Imotz bailaran berrera, Pazko bigarren astean Iruñeko hiriburuan sarrera eginez. Aurten ere 300 herri inguru igaroko ditu San Joanak bitarte".

Santutegitik bestelako berriak ere baditugu. Azken urteotan bertan lanean dabilen arkeologo taldea aurtengo udan ere bertan izanen da. Gizakiaren historiari buruzko informazio ugari biltzen ari dira bertan eta Noelia Silvak dagoeneko hemendik kanpo ere santutegiko lanen berri eman du esaterako Sevillan edo Berlinen. Maiatzean Madrilen aurkeztuko da orain arte egindakoa eta ondoren Uharteko Arakilgo Zamartzeko Monastegian emango du hitzaldia.

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXILON**

**661 202 249  
(9 plaza)**

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz



**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32



panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42



ARAITZ ETA BETELU

## 2.019 arrazoi biltzeko giza armarrria eta giza katea



Joan den hilean Araitz eta Beteluko Gure Esku Dagoko kideek 2018rako aurreikusten diren ekintzen berri eman zuen Arribeko plazan egin zen aurkezpenean. Euskal Herrian inoiz antolatu den mobilizazio handiena izatea espero dute aurtengoa. Ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea eginen da . 201,9 kilometroko ibilbidea izanen da eta 38 herri eta 3 hiriburu zeharkatuko ditu, Donostiako Bulebarretik Gasteizko Eusko Legebiltzarren atariraino. 100.000 pertsona beharko dira helburua betetzeko, 2014ko giza katean behar zirenaren bikoitza eta orainoan ere jarritako kopuru hori gaintzea da egitas-moko kideen erronka.

Beñat Pellejero, Araitz eta Beteluko Gure Esku Dagoko kidea: "Mendialdeko herritarroi Bortzirikoekin, Malerrekakoekin eta Baztangoekin batera Zarauzko kilometroetan parte hartzea tokatu zaigu. Goizean autobusean joango gara bertara eta eguerdiko 12:00etan izanen den giza katea osatu eta gero hiriburuetan egun osoko festa giroa eta ekitaldiak izanen dira. Gure kasuan, Donostiara joango gara eta arratsaldean berriro ere autobusa hartu eta bueltan etorriko gara".

Eta motorrak berotzen joateko, datorren maiatzaren 19an nafarren erabakimena adierazteko giza armarrria osatuko da Iruñeko Gaztelu Plazan, bertako kioskoa bandera-

ren erdigunea izanen delarik. Beñat: "Iruñeko ekitaldira nahiz giza katera autobusean joatea aholkatzen dugu, jende asko elkartuko garelako. Horretarako izen-emateak jasotzen gabiltza, antolakuntza errazteko. Iruñean osatuko den giza armarrirako kamiseta eta zapi gorriak banatzen gabiltza eta nafarrok giza katean ere kamiseta eta zapi gorriekin parte hartuko dugu".

Aurtengo ekitaldiek garrantzi berezia izango dute, 2019. urtea erabakigarria izanen dela aurreratu baitute Gure Esku Dago egitas-moko kideek. Datorren urtean Herri Ituna osatuko da eta bertan erabakitzeke 2.019 arrazoi biltzea da asmoa.

Aurtengo ekitaldietan parte-hartzeke eman izena: [www.gureeskudago.eus](http://www.gureeskudago.eus)



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

# “Igoeran energia gordez, jaitsieran bikoitza aurreratzen da”

*Beretxu Lavin Espainiako txapeldun izan da ipar eskiko aurtengo denboraldian. Hamahiru urteko lekunberriarra erreleboetan izan ezik gainerako proba guztietan txapeldun atera da, bai modalitate klasikoan eta baita skatingean ere. Gutxi izaten dira hori lortzen dutenak eta are gutxiago denboraldi berean.*

## **Ipar eskian Espainiako txapeldun eta bi modalitateetan gainera, Beretxu...**

Bai, skatingen eta klasikoan. Bi teknika ezberdin dira, eski eta oinetako ezberdinekin egiten direnak. Txikitatik ipar eskia egiten dugun gehienok, normalean bietan ibiltzen gara.

## **Zein ezberdintasun dituzte bi modalitate horiek?**

Skatingaren kasuan, eskien zola lisoa da eta aldeetara irristatzen doaz. Klasikoan aldiz, hasiberrien eskiek ezkata moduko batzuk dituzte eta gainerakoak leunak dira, baina elurraren tenperatura, hezetasuna eta hainbat faktore kontuan hartuta zera ezberdinak eman behar izaten zaizkie erdian. Klasikoak korrika ibiltzearen antza handiagoa du, abiadura gutxiago hartzen da, baina agian klasikoaren teknika skatingarena baino zailagoa da, pisu aldaketak, oina ongi sartzzea, angelu on batean...

## **Nolakoak izaten dira txapelketako saioak?**

Normalean kategoriaka ateratzen gara eta neskak eta mutilak banaturik. Erlojupeko probak izaten dira eta bertan daudenek aurrekoari zenbateko aldea ateratzen diozun ikusten joan daitezke. 800 metro eta 10 kilometro arteko lasterketak izaten dira eta igoerak, jaitsierak eta pixka bat denetik duten pistak aukeratzen saiatzen dira.

## **Eta non dago zailtasuna igoeran ala jaitsieran?**

Jaisteak badu bere zailtasuna, ahalik eta gutxien frenatzen saiatu behar zara, batez ere kurbetan, baina igotzea oso gogorra da.

## **Zein izaten da zure taktika? Ahalik eta azkarren igotzea ala indarra jaitsierarako gordetzen duzu?**

Badirudi aldapa gora dena eman

## *“Denbora dudan bakoitzean joaten naiz entrenatzera”*

eta aldapa behera lasaiago jaitsiz gehiago aurreratzen duzula, baina ez da hala. Hobe da igotzerakoan energia gordetzea eta jaitsieran asko bultzatzea, bikoitza aurreratzen da!

## **Noiz hasten da txapelketetako denboraldia?**

Abenduaren hasieran hasten da denboraldia eta zenbat liga txikitari parte hartzen dugu. Urtarrilean modalitate klasikoko Espainiako txapelketa izan zen eta martxoan Espainiako Skatingeko txapelketa.

## **Eta nola sailkatu zinen Espainiako txapelketan parte hartzeko?**

Beharrezkoa da federatzea. Gure taldearen kasuan, asko ez garenez guztiok parte hartu dezakegu, baina beste zenbait taldetan onenak aukeratzen dituzte.

## **Aurten ez zara emaitzekin kexatuko...**

Ez, ez. Klasikoan Espainiako txapeldun sailkatu nintzen bai springetan eta baita distantzia luzeko proban ere. Springen proban talde txikitari ateratzen gara eta amaieran denbora onena egin dutenen artean jokatzeko da azken lasterketa. Eta distantzia luzeko proba erlojupekoa izaten da eta banaka ateratzen gara, minutuero.

## **Eta martxoan skatingeko Espainiako txapelketa izan zenuen...**

Bai. Hor beste bi proba egin nituen. Springean lehenengo gelditu nintzen eta erreleboetan bigarren gelditu ginen. Erreleboen proba taldekakoa izaten da, hiru laguneko taldea.



**Zein klubetan ibiltzen zara?**

Uzturren, Tolosako taldean. Iruñean badira bi talde, baina txikitatik Berastegiko neska batekin harremana dut. Bere aita, Txiki Plazas, Uzturreko entrenatzailea da eta horregatik erabaki nuen Uzturren sartzea.

**Eta non entrenatzen duzue?**

Lehen biok bakarrik ibiltzen ginen, baina orain Tolosako beste neska batzuk sartu dira eta Berazubin rolleskiekin entrenatzeko baimena eman ziguten, Tolosako atletismoko pistetan. Bestela, portuak igotzen ibiltzen gara hemen inguruan. Ski pistetatik kanpo Rolleskiekin ibiltzen gara.

**Rolleskiak gurgildun eskiak dira, ezta?**

Bai, motzagoak dira eta gurgilak dituzte aurrean eta atzean. Horretan ere ezberdinak izaten dira skatingerako edo klasikorako. Skatingeko rolleskien kasuan, gurgilak aurreraka eta atzeraka joaten dira eta klasikoak zabalagoak dira eta gurgil bat atzeraka ez joateko blokeatu egiten da.

**Beraz, horiei esker eski estazioetatik kanpo entrenatzeko aukera izaten duzue...**

Bai eta behintzat, teknika, oreka eta ahalmen fisikoa landu dezakegu. Aldapa behera jaisteko pixka bat arriskuak izaten dira, ez dutelako frenorik eta s-ak egiten moldatu



behar zara. Askotan mendateak igo ondoren, jaitsi kotxez egiten dugu.

**Denbora asko eskaintzen al diozu entrenatzeari?**

Denbora dudan bakoitzean joaten naiz entrenatzera. Azterketa garaian ere denbora gutxi izanda ere saiatzen naiz tarte bat ateratzen eta rolleskiekin ez bada, igerilekura, gimnasia edo korrika egitera joaten naiz. Orain ziklismoan ere eman dut izena. Korrika egitea ez zait gehiegi gustatzen baina gaitasun fisikoa lortzeko lagungarria da. Ez da eskolaz kanpoko jarduera bat bezala, ez

*“Klasikoan lan handia ematen du eskiak aurretik prestatzeak”*





Aurten lortutako emaitzei esker, hainbatetan igo da Beretxu podiumera.



dut ordutegi finkorik, baina astean bitan taldekideekin gelditzen saiatzen naiz eta asteburuetan normalean hiru orduz goizean.

#### Lesiorik ala sustorik?

laz bota hautsi zitzaidan txapelketako lasterketabatean eta nahiko berria zen.

#### Abiadura handia hartzen al da?

Bai, baina lasterketaren aurretik zirkuitua ikusten dugu, aldapak nolakoak diren ikusi eta aurretik prestaketa egiten da. Txikitatik ibiliz gero beldur gutxiago izaten da. Lasterketaren egunean geroz eta gehiago berotu hobeto. Aurretik begiratzen dut nondik dagoen elurra okerrago, non dauden zulo gehiago, pistak nolakoak diren... Klasikoan adibidez, oso garrantzitsua da eta lan handia ematen du aurretik eskiak

prestatzeak. Elurraren temperatura-  
ren, hezetasunaren eta transforma-  
zioaren arabera argizari ezberdinak  
eman behar zaizkielako. Batzuetan  
elurraren egoera momentu batetik  
bestera aldatzen da eta ez da erraza!

#### Eskia kirol garestia dela esaten da... hala al da?

Bai, garestia da. Materialak diru asko balio du eta berehala txikia gelditzen zaizu. Gu normalean lagunen artean moldatzen gara, zahar-  
rragoek pasatako materiala hartzen dugu... Alpinoa baina askoz ere merkeagoa da, ez duzulako arrastirik behar, baina txapelketetan ibiliz gero, materialean asko gastatzen da.

#### Bidaiek ere egin beharko dituzue... Txapelketako lasterketak non izaten dira?

Penintsulako iparraldean dira denak. Urrutien Kataluniara joan naiz. Asko dira eskian ibiltzen diren katalanak eta oso onak dira. Nafarroan ere badira taldeak eta geroz eta hobeak, Iruñean, Erronkarin, Zaraitzun...

#### Aurtengo eski denboraldia amaitu da... Eta orain?

Espainiako Federaziotik emaitza onenak lortu genituenoi kontzentrazioaren batera deituko gintuztela aipatu ziguten eta horren zain nago. Eta abuztuan Rolleskiko txapelketa hasiko da. Baina orain, lortutakoarekin oso pozik nago eta eskiatzen jarraitzeko gogo handiago piztu dit.

M. Angeles  
Urrizalki

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

Diario Vasco eta Diario  
de Navarrako  
Korrespontsala

948513056  
699179437

**Atabal**  
akindogia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
948513151

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO  
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako platerak.  
Ettxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.

Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com





## Hasi da EHME iristeko atzera kontua

Ekainaren 2an izanen da aurtengo Euskal Herria Mendi Erronka. Dagoeneko 700 korrikalari inguruk eman dute izena, baina oraindik izen emateko epea zabalik dago maiatzaren 15era arte.

Aurtengo edizioan Juan Mari Torrealdai kazetaria eta soziologoa omen-duko dute, EHMEk mendizaletasuna bultzatzeaz gainera lurraldetasuna, ofizialtasuna eta euskara sustatzea ere baduelako helburu. Iazko ibilbide bera mantenduko da. 67 kilometro dira guztira, Leitza, Araitz, Betelu, Lekunberri, Larraun eta Berueteko mendiak zeharkatuz.

Goizeko zortzietan irtengo dira korrikalariak Leitza plaza eta eguerdi aldera hasiko dira bueltan helmugara iristen. Sari banaketa iluntzeko 20:00etan izanen da.

Oraindik garaiz zabilta, eman izena!

## Kirol Astea ospatuko da maiatzaren 30etik ekainaren 2ra

Maiatzaren azkeneko astean, Kirol Astea ospatuko du Kirol Mankomunitateak. Lau egunez, hainbat kirol saio dohainik eskainiko dira eta ikasturtean zehar lanean ibili diren kirol taldeek erakustaldiak eskainiko dituzte. Maiatzaren 30etik ekainaren 2ra bitarteko egitarau berezia prestatzen ari dira Kirol Mankomunitatean.

Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketaren erdia egina dute Araxeskoek



Aurreko alean aurreratu genizuen moduan, Araxes Herri Kirol taldea Nafarroako 4x4 sokatira txapelketan parte hartzen ari da. Kadeteen eta 20 urtez azpikoen mailan ari dira jokatzeko. Dagoeneko bi jardunaldi jokatu dituzte. Txantrean izan zuten lehena eta Lesakan bigarrena. Apirilaren 21ean jokatu zuten bigarren saio hartan Kadeteek tiraldi bat irabazi eta beste bat berdindu egin zuten eta 20 urtez azpikoen ordea ez zuten horrenbesteko zortetik izan eta finalerako sailkatzea zaildu egin zaien arren, oraindik ere badute aukera. Beste bi jardunaldi jokatu dituzte hilabete honetan zehar, Antsoainen eta Iruritan. Lau jardunaldi horietan puntu gehien lortzen dituzten bi taldeen artean jokatu da finala.



**FISIOTERAPIA**

Andoni Ayerdi Olascoaga

609 536 002 · 948 604 789

Iturrifak kalea 7, 31870 Lekunberri  
andoniaofisioterapia@gmail.com

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza**

# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Nature

*“Nature haundittue dauke, laister do umea”.*

*Nature baño gauze magikogoik ba ote dau? Nature hitzeen esanahie baño zabalagoik eta aldi berean intimogoik ba ote dau? Zer da ba, ordea, nature?*

*Nature udaberrie da, haizea, ebie, basoko itzala eta euzkien argie; mendi puntoko haize fine da nature, kukue, gooldio berdea, errekan soñue ta larramiluen us-  
aie. Sortzea, ernaltzea, loratzea, bizitza bea da nature, kanpoa atea ta ikusten  
o sentitzeun hoi dena da nature.*

*Bihotz taupada azkartuk re badee nature; basoan umela, gazta berrien gañeko li-  
zune, itsasoko uren o bizkarreko izardien gazie, puntte likatsuet, hankarte bustie, oo-  
lan gorrie ta ezpañen gorie; sexue, sue, kanpoan ez ezik barrunbean e bada nature.*

*Gue baitan damakiu emakumeok naturen zatitxoat, emEkume guztin or-  
ganoik intimonai re esaten baitzaio nature. Eztakit, ordea, noiz ta nola utzi  
zitzaion emakumean hankarteko txoko magiko ta goxo horri nature esateai.  
Sotana beltzak itzal haundi xamarra itten zuen garaitan akaso, eztakit. Gor-  
putze arimen ispilu dela ohartuik arime hoin kontrola lortzeko itzalen arteko  
borrokatan akaso, eztakit.*

*Barroti, soo mutur guztitan ikusten dee behorrak garai hontan behen txamal-  
ttikie ondoan duela. “Nature haundittue dauke, saarri do umea”.*

*Nik e izan dot haundittue nature, ta halaxe izatea bai, belaxe zun umetxoak  
kanpoan burue. Bizie ematea eta bizitzea bea baño gauze polittegoik eta  
magikogoik ba ote a ba? Naturen alde oaingoan nere apustue! Azindatan  
ibiltzean hitze da, eta emakumetan zeatik ez ba. Potota, xamurtasunez esan  
nahita re traatuta geatzeta eztarrin. Ta alue, hitze asmatu zuna bea izango  
zen galanta. Igualeko hitz politte ta goxoa da nature, adierazteon guztiekin  
gañea.*

*Itzal, beldur, lotsa, pekatu, lizunkeri ta beinkazio guztin gañetik itteo kukuek  
kuku udaberrie heltzean, udak ekarrikotto enarak eta euzkiek larramillue. Na-  
ture izan daillela birea eakustean argi izpie, kanpokotik ta barrungotik, na-  
turetik sortuk gea denok, zor diu hainbeste.*



**Naroa Elordi Ilarregi**  
 Maiatzaren 11an, 7 urte.  
 Zorionak polittena!! Egun ona pasa.  
 Ongi-ongi ospatu zure lagunekin eta familiarekin.  
 Muxu potolo bat guztien partez.

**Araika Etxarri Urbizu**  
 Maiatzak 6, 6 urte.  
 Zorionak Araika!!! Nola ospatuko deu zure urtebetetze euna? Bazkaltzen? Merendatzen? Pintxo-poten? Zu hortako beti prest!! Ongi pasa politte, familia guztin partetik.



**Irantzu Etxarri**  
 Maiatzak 23.  
 Zorionak Irantzu!!!  
 Zure kuadrilaren partez munduko besarkadarik goxo, indartsu ta maiteko-rrena!!!! Asko maite zaitugula ez ahaztu!!



**Eneko Etxeberria Etxarri**  
 Maiatzaren 12an 2 urte.  
 Merezi duzun bezala ospatuko dugu zure eguna.  
 Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez.



**Nikolás Bécares**  
 Maiatzaren 18an, 3 urte.  
 Zeinen handia zauden!  
 Jarraitu holako irribarre politarekin eta geroz gehiago ikasten!  
 Muxu handi bat aita, ama eta Luanaren partez. Muuuuuuu!!!




**Miren Tirapu**  
 Maiatzak 28.  
 Zorionak!!! Egun zoriontsu bat izan.  
 Zure kuadrila.




**Aimar eta Aitzor Zubillaga**  
 Maiatzak 4, 15 urte.  
 Maiatzak 15, 11 urte.  
 Zorionak bikote!! Merezi bezain ongi pasa zuen urtebetze eguna.  
 Muxu bana Ugaitz, aita eta etxeko guztien partez.

**Gurutze Otamendi**  
 Maiatzaren 3an, 58 urte.  
 Zorionak ama, amona!!  
 Urtetan bakarrik ez, bizipozean ere segi holaxe gehitzen eta gehitzen.  
 Muxu haundiet etxeko guztin partez.



**Aimar Aldaregia Balda**  
 Maiatzaren 6an, urte bat.  
 Zorionak Aimartxo!!!  
 Etxeko txikiak jada urtetxo bat! Ongi pasa zure egunean.  
 Muxu handi bat Iraide, Haizea eta familia osoaren partez.



**Jakes Iturrioz Cruz**  
 Maiatzaren 11n, 9 urte.  
 Zorionak zure 9. urtebetetzean!!!!  
 Ondo pasa beti!!!!



**Alaitz Olano**  
 Apirilaren 25ean, 18 urte.  
 Zorionak zure 18. urtebetetzean! Oso ongi pasa egune ta disfrutatu politta!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
 Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.



**Lagunasesoría S.L.**  
 Fiskala  
 Laborala  
 Kontabilitatea  
 Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**  
 BETELU  
 948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**  
 ABOKATUAK  
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



# Araxesen ere hasi dira lehenengo ametsak betetzen

Abenduan ekin zion Araxes ikastetxeak Ikas Komunitatearen proiektuaren ametsen faseari. 2018ko urtarilaren 21era bitarte ikasle, irakasle, guraso nahiz gainerako herritarren ametsak bildu zituzten. 1.300 amets inguru jaso ziren eta horregatik ikastetxeak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zuten guztiei.

*“Haurren ametsak apartak dira, euren munduak dibertsioaren inguruan osatzen da. Baina badaude amets oso formalak ere, adibidez jantokia astean behin ingelesez izatea. Bestetik, pizza eskaera ugari daude, makarroiak, patata tortillak... ere. Baita plater integralak, begetarianoak, ekologikoak eta sushia wasabirekin ere...”*

*Eskolaz kanpoko jarduera desberdinak amestu dituzte: judoa, yoga, taichi, dantza, artea... Azterketak eta etxeko lanak? Kendu daitezela edo behintzat gutxitu, astebururako ez bidaltzea, baina badaude gehiago nahi dutenak ere. Proposamen metodologikoak ere jaso ditugu, adimen anitzak, pedagogia sistemikoa, ikas-*

*keta inguruak, ikasketa manipulati-boa, Montessori...”*

Ikastetxeko eraikinean amestu dutenak ere izan dira: igerileku batekin, errealitate birtualeko gela batekin, tirolina, parkour pista, sofak, komunetako ispiluak, gelan aulki eroasoagoak...

Amets horien guztien sailkapena egin behar zen lehentasunak ezarriz. Eta hori ere dagoeneko egiten hasi dira Araxes eskolan. Batzuk, errazena, denon laguntzarekin aurrera eramateko aukera izanen dute ikasturtea bukatu baino lehen eta beste batzuk, datorren urterako edo hurrengoetarako utzi beharko dituzte. “Nahiago genuke errazagoa izango balitz! Baina dirua behar duten amets horiek edo prozesu bat behar dutenek, pixka bat itxaron beharko dute!”

1.300 ametsak sailkatzeko egin diren bileretan (oraindik bukatu ez den sailkapena), amets batzuk askotan errepikatu dira.



Euskaraldia martxan jartzeko batzordea sortu da Larraunen. Arg: Labrit





### Egikaritzeko lehen ametsak

Garrantzia eta premia baloratu ondoren, batzorde hauek sortzea erabaki dute ondoko ametsak gauzatzeko: Eskolan baratza izatea, patioan euritik eta eguzkitik babesteko estalpe bat egitea eta jantokian pizza eskaintzea.

- Martxoaren 27an egin zuten batzordeek lehen bilera eta orduz geroztik martxan dira, ezarri dituzten helburuak lortzeko. Batzorde hauek egingo dutenaz gain, dagoeneko 4 amets bete dituzte:
- Eskolan 2018-2019an jardunaldi jarraia egotea.
- Komunetan ispiluak jartzea.
- Komunak neska edo mutilentzako diren jakiteko identifikazio ikurrak jartzea.
- Udalari eskaera egin zaio, herriko presa ekainaren lehengo astebururako egokiturik egon dadin.
- Eguberrietan eta ikasturte bukaeran egiten diren jaiez gain, Aste Santuko porrak hartu baino aurreko egunean jaialdia egitea.

***Beteluko Ikas Komunitatea martxan da, eta geldiezina da! Animatu eta parte hartu! Nola egin dezakezue? Posta elektronikoa bidez: [ikasko.araxes@gmail.com](mailto:ikasko.araxes@gmail.com)***



**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU bar**

ETXKO PIZZAK.  
KOPA. BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN s.l.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
[gtlarraun@gmail.com](mailto:gtlarraun@gmail.com)



### SALTO UDALAKUAK, IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eragile aktibo bihurtzeko, udalerri euskaldunetako gazteen udalekuak antolatu ditu aurten lehen aldiz UEMAK. Uztailaren 10etik 17ra izango da egonaldia, Zestoako Sastarrain aterpetxean. 50 lagunentzako izango da lekua.

### LEKUA

Zestoako Sastarrain aterpetxean izango dira udalekuak. Aterpetxeari eta inguruari buruzko informazio osagarria, hemen: [sastarrain.com](http://sastarrain.com)

### NORENTZAT?

Udalerri euskaldunetan bizi diren 15 eta 18 urte arteko gazteentzat; gurean, Araitz, Areso, Bababurua, Goizueta, Larraun eta Leitzako gazteak.

### IZENA EMATEKO EPEA eta MODUA

- Izena emateko epea martxoaren 19an hasiko da, eta maiatzaren 9ra arte izango da zabalik.
  - Horretarako, [hezkontza@uema.eus](mailto:hezkontza@uema.eus) helbidera idaztea edota 943 816699 telefonora deitzea (asteleheneretik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara) nahikoa izango da.
- 249 euro ordaindu beharko du gazte bakoitzak.

Bidali zure heriotz-agurra [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez. (Dohako zerbitzua).

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Asteleheneretik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)

## German Lasarte

ARBEONDO HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

## aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
[aitzberri@hotmail.com](mailto:aitzberri@hotmail.com)



## MAIATZA

## 8 | LEKUNBERRI:

Literatur solasaldia Miren Agur Meaberekin, arratsaldeko 18:00etan Larraungo AEK euskaltegian.

## 8 | LEKUNBERRI:

"Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko" tutoriala. Goizeko 10:00etan, Mitxausenean.

## 10 | BETELU:

Heziketa prebentzioa, alkoholaren eta drogen kontsumoari buruzko tailerra, arratsaldeko 15:00etan Araxes ikastetxean.

## 19 | IRUÑEA:

Nafarroako Gure Esku Dagok antolatutako Giza armarriaren ekitaldia.

## 28 | LEKUNBERRI:

Haurrekin heriotzaz nola hitz egin ikasteko tailerra, arratsaldeko 15:15etan Ibarberri ikastetxean.

## 29 | BETELU:

Sare sozialen erabilera egokiari buruzko hitzaldia, arratsaldeko 15:00etan Araxes ikastetxean.

## EKAINA

## 2 | ESKUALDEA:

Euskal Herria Mendi Erronka.

## 10 | ZARAUTZ:

Gure Esku Dagok antolatutako Giza katea

## SALGAI

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Salgai enpakadora John Deere 330. Gutxi erabilia, egoera oso onean. Telefono zenbakia: 659 796 445

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

- Txabola saltzen da. 6x2,5 metro karratuko txabola, suarekin, mahaiarekin eta ohearekin.  
(Vicente 662 565 636).



**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA**  
· HARATEGIA ·

**PATXI GALARZA**  
Astehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

